

2009 UDAL AURREKONTUA

Aizarnazabalgo **Udal Plenoak**, bi mila eta zortzigarreneko urriaren hogeita hamarrean burutu zuen Ohiko Bilkuran, beste gai batzuren artean, ondorengo hau onetsi zuela:

6. 2009 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUA.

Gaiordenarekin jarraituz, eta 2009 ekitaldiko Aizarnazabalgo Udalaren Aurrekontu espedientea aztertu ondoren, onarpenerako botazioa egin zen, ondorengo emaitzarekin:

- Hiru boto onartzearen alde, ondorengoek emandakoak: Onintza Unsain, Luis Mari Etxabe, eta Jesus Arruti.
- Kontrako botoa, Itziar Aizpurua, EAJ-PNV Talde Politikokoa, iruditzen zaiolako inbertsio gutxi aurreikusi dela.

Botazioaren ondoren, zera erabaki zen

1. Aurrekontua onartzea, ondorengo kapitulokako laburpenarekin:

GASTUAK		
KAP.	KONTZEPTUA	EUROAK
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK.	
1	Pertsonal gastuak.	286.400
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	221.760
3	Finantza gastuak.	3.000
4	Transferentzi arruntak.	197.985
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	0
6	Inbertsio errealak.	247.555
7	Kapital transferentziak.	12.000
8	Finantz aktiboak.	0
9	Finantz pasiboak.	0
	GASTUAK GUZTIRA.	968.700

DIRU SARRERAK		
KAP.	KONTZEPTUA	€UROAK
	A) ERAGIKETA ARRUNTAK.	
1	Zuzeneko zergak.	229.000
2	Zeharkako zergak.	50.000
3	Tasak eta bestelako dirusarrerak.	192.800
4	Transferentzi arruntak.	467.000
5	Ondare sarrerak.	1.700
	B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6	Inbertsio errealeen salmenta.	0
7	Kapital transferentziak.	28.200
8	Finantz aktiboak.	0
9	Finantz pasiboak.	0
	DIRU SARRERAK GUZTIRA	968.700

2. Aurrekontu Orokorra burutzeko oinarriak onartzea.
3. Aurrekontua jendaurrean erakustea hamabost lan egunetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkien ohelean iragarkia argitaratuz.
4. Jendaurrean erakutsi ondoren, alegaziorik ez balego, aurrekontu hau behin betiko onartutzat hartuko da beste onarpenik egin gabe.

Aizarnazabalen, 2008ko azaroak 3.

ALKATEA,

AIZPEA MANTEROLA SALABERRIA.